

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

**ZIURTATU DOT:**

2017ko irailaren 4ko udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi hau agindu dauela:

**2.- ASFALTATZE LANAK - 2017KO KANPAINEA ESLEITZEA.**

**Xedea**

Asfaltatze lanak – 2017ko kanpaina

**Aurrekariak**

Lehena: Kontratuaren beharrezana Zerbitzu Saileko zinegotzi delegatuaren 2017ko maiatzaren 12ko idazkian eta 2017ko maiatzaren 26ko Zerbitzu Saileko teknikariaren txostenean egiaztatu da.

Bigarrena: 2017ko maiatzaren 10ean 2017ko kanpainako asfaltatze lanetarako gastuaren atxikipena egin da, 113.783,65 euro.

Hirugarrena: 2017ko ekainaren 12an kontu-hartzaileak ikuskatze mugatuaren txostena bialdu dau.

Laugarrena: 2017. urteko asfaltatze kanpainako lanak 2017ko ekainaren 21eko 884. Alkatetza dekretuan prozedura negoziatu bidez bideratzea onartu zan.

Bosgarrena: Lizitazio honetarako gonbitea hainbat enpresari bialdu jake eta informazioa udaleko kontratugilearen profilean ipini da. Honen ondorioz hiru enpresak aurkeztu dabe euren eskaintzea:

- Asfaltados Uribe, S.A. enpreseak 2017ko uztailaren 19ko dateagaz eta 8.507 sarrera erregistroagaz.

- Probisa Vias y obras, S.L.U. enpreseak 2017ko uztailaren 21eko dateagaz eta 8.550 sarrera erregistroagaz.

- Asfaltados Olarra, S.A. enpreseak 2017ko uztailaren 21eko dateagaz eta 8.558 sarrera erregistroagaz.



## Argudioak

Lehena: Administrazio baldintza orrietan ezarritako negoziazio erispideak jarraituz, aurkeztutako enpresekaz negoziazio prozesua burutu da.

Bigarrena: Prozesu honen ondorioz, Zerbitzu Saileko teknikariak eta Idazkaritza Saileko AOTk egindako 2017ko abuztuaren 29ko txostenean honako hau proposatzen da:

*“Esanak esan, lehena Asfaltados Olarra, S.A. enpresa da zeinak II Fasean eskaintzarik baxuena egiten duen eta proposamen teknikoa berdindu (mantendu) egiten duena.*

Zb.	ENPRESA	ESKAINNTZA EKONOMIKOAK (BEZ BARIK)		
		HASIERAKO ESKAINNTZA	I FASEA	II FASEA
1	ASFALTADOS OLARRA (ENPRESA 2)	84.231,53€	87.449,17€	80.750,00€
2	PROBISA VIAS Y OBRAS (ENPRESA 3)	74.890,00€	91.601,64€	82.700,00€
3	ASFALTOS URIBE (ENPRESA 1)	93.095,70€	93.095,70€	84.823,36€

### Proposamena

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau proposatzen dut:

**LEHENA:** 2017ko Asfaltaze kanpaina ASFALTADOS OLARRA, S.A enpresari esleitzea 80.750,00 eurotan (BEZ kanpo), BEZari dagokion kantitatea 16.957,50 €-koa da (Guztira: 97.707,50€).

**BIGARRENA:** Kontratuan jasotzea azkeneko fasean enpresak egin dituen hobekuntza guztiak.”

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen dauen azaroaren 14ko 3/2011 EDLren 151.1 eta 151.2 artikuluko atalak kontuan hartuta.

Laugarrena: Testu bereko II. xedapen gehigarria kontuan hartuta,

Tokiko Gobernu Batzar honek aho batez zera **ERABAGI DAU:**



**LEHENA:** 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen arabera, prozedura negoziatuaren bitartez asfaltatze lanen kontratuaren eskaintzak sailkatzea eskaintza onuragarrietik hasita, hurrengo eran:

Hurrenkeria	ENPRESEA	ESKAINNTZA EKONOMIKOAK (BEZ BARIK)		
		HASIERAKO ESKAINNTZA	I. FASEA	II. FASEA
1	ASFALTADOS OLARRA (2 ENPRESEA)	84.231,53€	87.449,17€	80.750,00€
2	PROBISA VIAS Y OBRAS (3 ENPRESEA)	74.890,00€	91.601,64€	82.700,00€
3	ASFALTOS URIBE (1 ENPRESEA)	93.095,70€	93.095,70€	84.823,36€

A48028435 IFZ daukan ASFALTADOS OLARRA, S.A enpreseak aurkeztu dau eskaintzarik onuragarriena.

**BIGARRENA:** A48028435 IFZ daukan ASFALTADOS OLARRA, S.A enpreseari 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151.2 artikuluan xedatutako errekerimendua egitea, 10 egun balioduneko epean ondokoak aurkeztu dagizan:

- Ordainketak egunean izatearen Foru edo Estatuko Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

- Kontratua betetzeko agindu dauzan baliabideak benetan kontratu honetarako ipiniko dauzala kreditatzen daben agiriak.

- 4.037,50 euroko behin betiko bermea.

**HIRUGARRENA:** Erabagia esleipenerako proposatutakoari jakinarazotea eta ohartarazotea 10 egun balioduneko epe horretan egindako errekerimendua beteko ez baleu, kontratazinoari uko egiten deusola ulertuko dala, eta hurrenkera jarraituz hurrengo lizitatzaileri errekerimendua egingo jakola.

**LAUGARRENA:** Erabagi honen barri emotea Zerbitzu Sailari eta Ekonomia Sailari.




**BOSGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idatzi dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohararazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua araberan), Idurre Bideguren Gabantxo alkate andrearen aginduz eta onetsiaz, Bermeon, 2017ko irailaren 4an.

ONETSIA  
ALKATEA

Idurre Bideguren Gabantxo



IDAZKARIA

Jurdana Uriarte Lejarraga

